



2020-2021 Ikasturterako protokoloa pandemiak sortutako salbuespen egoera dela eta.

Dokumentu honetan Oiartzungo Herri Musika Eskola (OHME) kudeatzen duen Soinuenea Fundazioak 2020-2021 ikasturtean zehar COVID-19ak sortutako salbuespen egoera dela eta, ikasle zein irakasleen jarduna eta klaseetan osasun baldintzak bete arazteko hartuko dituen neurriak eta plangintzak aurkezten du.

1. Plangintza orokorra

Soinuenearen helburu nagusia klaseak ahal den neurrian % 100 presentzialak izatea da, honen ondorioz datorren irailaren 14tik aurrera horrela hasiko dugu ikasturte berria.

Hiru egoera aurreikusten ditugu:

- a. Klase denak presentzialak.
- b. COVID-19an positibo eman dezaketen ikasleekin on-line klaseak, besteekin presentzialak.
- c. Klase denak on-line izatea.

2. Aipatutako 3 egoera ezberdinekin klaseak honela antolatuko dira.

(2.a) Klase denak presentzialak.

- Madalensoro pilotalekura sartzeko sarrera bakarra egongo da. Ikusi azken orrian.

- Madalensoro pilotalekutik ateratzeko irteera bakarria egongo da. Ikusi azken orrian.
- Geletara sartu aurretik frontoiaren gradetan zain egon behar da irakasleak aretoa prestatu arte, berak esango dio ikasleari noiz sartu behar duen gelara.
- Klaseak beti irakaslea ikasle bat edo gehienez bi ikaslez osatutakoak izango dira.
- Taldeko klaseak Lartaun Txistu Taldearen aretoan izatea espero dugu, gaurko datarekin (2020-09-04) oraindik udalak ez digu erantzunik eman.
- Klaseetara sartu aurretik eta irteterakoan ikasleek beti eskuak garbitu beharko dituzte.
- Ikasle bakoitzak bere soinu-tresna eta koadernoak ekarri behar ditu eta berak bakarrik erabili ahal izango ditu.
- Ikasgaiaren arabera muxukoa erabiltzea derrigorrezkoa izango da: biolina, txalaparta, solfeo eta herri perkusioan.

(2.b) Covid-19an positibo eman dezaketen ikasleekin on-line klaseak, besteekin presentzialak.

- On-line klaseak ordenagailu eta mugikor bitartez: txistu, solfeo, alboka, biolina eta herri perkusioa.
- On-line klase bereziak ikaslearen maila musikalaria egokituak behar zehatzak betetzeko ikasgai hauetan: bakarkako dultzaina eta xirolarri ikasgaietan.
- Taldekako klaseetan (Dultzaina eta Xirolarria) binakako on line klaseak aurreko puntuan adierazitako baldintza berekin.

(2.c) Klase denak on-line izatea. 2.b atalean adierazten diren baldintza berak.

3. Soinueneak bere gain hartuko dituen beste neurriak.

- Irakasleak klase eta klaseen artean ikasleek erabilitako aulki, atril eta bestelakoak desinfektatuko ditu.
- Soinueneak gela guztietan eskuak garbitzeko gel hidroalkolikoak jarriko ditu.

- Garbitzaileak eskolaren aretoak astean bi aldiz garbituko ditu.
- Irakasle edo ikasle batek positibo emango balu lehen bait lehen behar den jendeari honen berri emango genioke.
- Ikasturtea hasi aurretik OHME langile guztiei test serologiko bat egingo zaie.
- Taldetako ikasgaiak bertan behera uzteko taldeko bi kidek eman beharko lukete positibo.
- Irakasle batek positibo emango balu hartuko diren neurriak:
 - a. Asintomatikoa balitz klaseak etxetik lehenago (*begiratu 2.b atala*) aipatutako on-line baldintzekin.
 - b. Gaixotasun baja hartu beharko balu Soinueneak honen ordezkotako bat bilatuko luke, ahal den neurrian irakasle horrek eskaini ditzakeen gaitasun berdinekin.

4. Ikasleei eta beraien guraso zein arduradunei eskatzen zaiena.

- Irakasleek emandako agindu eta azalpenak behar bezala betetzea.
- Garbitasun eta distantzia neurri orokorrak (guztientzat dagoeneko ezagunak direnak) behar bezala betetzea.
- Irakasleak emandako etxerako lanak astero egitea.
- Klaseetara joaterakoan ordutegiak behar bezala betetzea.

5. Ikasturtea hasi bezain laster Soinuenea Fundazioak jarriko dituen baldintzak matrikulari dagokionez.

- Soinueneak agiri honetan adierazi duen bezala ikasturte osoan zehar suertatuko diren egoera berri guztiei aurre egiteko plana aurkeztu du.
- Ulertzen dugu ikasleak behin ikasturtea hasten duenean aurkeztutako plana onartzen duela. Ikasturtean zehar baja ematen duten ikasleei ez zaie matrikula bueltatuko.

Madalensoro pilotalekuan sartu eta ateratzeko atak!!!

